| | |
|---|---|
| Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea | **BP/PRV**<br>***Eskuliburua – PRAKTIGES*** |

| | | |
|---|---|---|
| **UPV/EHU** | ***Borondatezko praktikak*** | Data: 2022/03/8 |

# *Ikastegiko arduraduna*



# Aurkibidea

**Orrialdea**

SARBIDE BALDINTZAK ... 4
ATARIKOA ... 5
IKASTURTE BERRIA HASTEA ... 5
PARAMETROAK ... 6
ALERTAK ... 17
ALBISTEAK ... 17
TAULA OROKORRAK ... 18
Taula orokorrak. Tutoretzen protokoloa ... 18
Taula orokorrak. Espezialitateak-eremuak ... 19
IKASLEAK ... 19
Ikasleak. Ikasle-zerrenda ... 19
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ... 21
Erakunde laguntzaileak. Erakundeak ... 21
Erakunde laguntzaileak. Erakunde Laguntzaileak ... 22
Erakunde laguntzaileak. Unitateak/Atalak ... 24
Erakunde laguntzaileak. Balidatu erakunde laguntzaileak ... 24
PRAKTIKAK ... 25
Praktikak. Praktiketako eskaintza ... 26
Praktikak. Balidatu praktikak ... 34
Praktikak. Praktiken eskaintzen kopia ... 35
TUTOREAK ... 35
Tutoreak. Instruktoreak (Begiraleak) ... 35
Tutoreak. Irakasle tutoreak ... 37
ESLEIPENAK ... 38
Esleipenak. Eskuratu hitzarmenak ... 39
Esleipenak. Txostenak - Memoria ... 39
Esleipenak. Esleipena ... 40
Esleipenak. Iruzkinak - iradokizunak ... 40
JAKINARAZPENAK ... 41
Jakinarazpenak. Jakinarazpenak taldeei ... 41
Jakinarazpenak. Jakinarazpenak erabiltzaile bati ... 42
ZIURTAGIRIAK ... 43
Ziurtagiriak. Ikasleak ... 43
Ziurtagiriak. Irakasle tutoreak ... 44
Ziurtagiriak. Eskaera duten instruktoreak (begiraleak) ... 45
Ziurtagiriak. Instruktoreak - sorkuntza masiboa ... 45
ZERRENDAK – KALKULU ORRIAK ... 46

Zerrendak–Kalkulu orriak. Ikastegian balidatutako erakunde laguntzaileen zerrenda ........... 46
Zerrendak-Kalkulu orriak. Uneko ikasturtean praktikaren bat duten erakunde laguntzaileak ........ 47
Zerrendak-Kalkulu orriak. Aurreko urteetako burutu gabeko ikasleen ziurtagiriak .............. 47
Zerrendak-Kalkulu orriak. Praktiketako datu orokorrak ........ 47
Zerrendak-Kalkulu orriak. Zain dauden aurreko ikasturteetako irakasle ziurtagiriak ........ 48
Zerrendak-Kalkulu orriak. Zain dauden aurreko ikasturteetako instruktore-ziurtagiriak ........ 48
Zerrendak-Kalkulu orriak. Aurreko urteetatik ebaluatu gabe dauden praktikak ........ 49
IKASTURTE AKADEMIKOAREN AMAIERA ........ 49
AURKIBIDE ALFABETIKOA ........ 50

## SARBIDE BALDINTZAK

- Sistema Eragilea: Windows XP SP3, Windows 7, Macintosh, Linux.
- Windows XPn, Internet Explorer nabigatzailea 7. bertsiotik aurrera; Firefox-en 3. bertsiotik aurrera; Google Chrome-n 35.0 bertsiotik aurrera eta Safari-n 5.17 bertsiotik aurrera.
- Windows 7-n Internet Explorer nabigatzailea, 9. bertsioa (32 biteko arkitekturak); Firefox-en 23.etik aurrera; Google Chrome-n 35.0 bertsiotik aurrera; Safari-n 5.17 bertsiotik aurrera.
- Macintosh-en hauek exekutatzeko bakarrik: Web HTML (No Oracle Form) profilak, Firefox nabigatzailea 23.etik aurrera; Safari-n 7. bertsiotik aurrera.
- Linux-en hauek exekutatzeko bakarrik: HTML Web-a(No Oracle Form), Firefox nabigatzailea 23.etik aurrera.
- Java, JRE 6 Update 16-etik JRE 7 Update 45-era (32 bit).
- Word 2007.
- Acrobat Reader (8.etik 11.era).
- Izenpe User 3.2.1.0 kit-a

## ATARIKOA

Dokumentu honetan, borondatezko praktikak kudeatzeko moduluak, Praktiges, ikastegiko arduradun gisa identifikatutako erabiltzaileari eskainiko dion funtzionaltasuna deskribatzen da.

## IKASTURTE BERRIA HASTEA

GAURera sartzean eta “Borondatezko praktikak” menuko aukera sakatzean, beste leiho bat zabalduko da, eta lehen orrialdean landuko den ikastegia eta ikasturtea aukeratuko dira.


**Ikastegiaren eta ikasturtearen hautapena**

*Hautatu zein ikastegirekin lan egin nahi duzun eta zein ikasturtetan.*

**Hautatu ikastegia:**

263 Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola

| | Ikasturtea: | Egoera |
|---|---|---|
| >> | 2021/22 | Irekita |
| >> | 2020/21 | Itxita |
| >> | 2019/20 | Itxita |
| >> | 2018/19 | Itxita |
| >> | 2017/18 | Itxita |
| >> | 2016/17 | Itxita |
| >> | 2015/16 | Itxita |
| >> | 2014/15 | Itxita |
| >> | 2013/14 | Itxita |
| >> | 2012/13 | Itxita |
| >> | 2011/12 | Itxita |
| >> | 2010/11 | Itxita |
| >> | 2009/10 | Itxita |
| >> | 2008/09 | Itxita |
| >> | 2007/08 | Itxita |
| >> | 2006/07 | Itxita |

*Ikasturte berri bat parametrizatzeko, hautatu nahi duzun ikasturtea eta sakatu Sortu ikasturte berria botoia.*

**Ikasturte berria:** 2026/27 **Sortu ikasturte berria**

Bertan, ikasturte akademiko berri bat sortzeko aukera ematen da. Ikasturte akademiko berria hautatu eta IKASTURTE BERRIA SORTU aukeran sakatuko dugu. Sistemak berrikusiko du ikastegi horrek ikasturte horretarako irakats eskaintza duen GAUR-en. Irakats eskaintzarik ez badago, mezu bat agertuko da ikasturtea ezin dela sortu adieraziz. Eskaintzarik badago, hurrengo pantailaren antzeko bat agertuko da, ikasturte akademikoa sortu ahal izateko.




Jarraian, ikasturte akademiko berria sortu aurretik eman beharreko gutxieneko pausoak deskribatzen dira.

URL eremuan, webgunearen helbide osoa idatzi behar da (http edo https barne). "Ikastegiko arduraduna" eremuak lupa bat eskaintzen du, hau klikatuz ikastegiko irakasleen artean bilaketa egiteko, eta, "Bilatu"n klikatzen badugu izenik jarri gabe, pantaila bat agertuko zaigu, ikastegiko irakasle guztien zerrendarekin. Irakaslea aukeratzeko, bi aldiz sakatuko dugu haren izenaren gainean, eta gorde egingo dugu, parametroekin aurrera egiteko.

## PARAMETROAK

Ezkerreko menuko aukera honetatik, borondatezko praktiken kudeaketa konfiguratu behar da, ikastegian eta jarduneko ikasturtean. Aurretik ikasturte bat kudeatu baldin badugu, aurreko ikasturteko datuak kopiatuko dira, lehenetsitako aukera gisa, eta horien gainean aldaketak egin ahal izango dira. Parametroak ikasturte akademiko osorako finkatuko dira, eta ez da komenigarria aldaketak egitea behin ikasturtea irekita dagoenean.

Funtzionaltasun honetan zortzi atal daude:

1. Datu orokorrak
2. Sarbidea: ikasleen sarbideari lotutako datuak
3. Titulazio arduraduna
4. Aurrehautapena: ikasleen aurrehautapenari lotutako aldagaiak, esleitu aurreko prozesuak, etab.
5. Ikaslearen memoria. Atal honetan, memorian planteatutako inkesta ikusi ahal izango da, eta ikasleak erantzun beharreko ikastegiaren berezko galderak gehitzeko aukera ere emango da.
6. Inkesta begiraleari. Aurreko kasuaren parekoa, baina instruktoreentzat.
7. Titulazioko gaitasunak. Titulazio bakoitzeko bete beharreko hizkuntza anitzeko eremuak, oinarrizko gaitasunekin, orokorrekin eta espezifikoekin
8. Alerten jakinarazpena.

### 1. Parametroak – Datu Orokorrak

Honako eremu hauek ditu:

**Deskribapena.-** Ikastegiko borondatezko praktiken kudeaketari buruzko hizkuntza anitzeko deskribapena biltzen du. Haren xedea informazioa ematea da, eta ikasleek, enpresak, irakasleek eta ikastegiarekin lanean dihardute instruktoreek ikusiko dute testua.




**Url-a.-** Url osoa jasoko dugu (http edo https barne). Bertara sartu beharko dugu ikastegiko borondatezko praktiken kudeaketari buruzko informazio gehiago eskuratzeko.

**Egoera.-** Eremu honen bitartez, kudeaketaren egoera lantzen da. Lau aukera daude:

- **Definitzen.** Ikasturteko datuak prestatzen ari direnean eta sistemara inor sartzea nahi ez dugunean.
- **Enpresentzako irekita.** Enpresak baino ezingo dira sartu. Enpresek eskaintzak sar ditzakete bertan, baina ikasleek ezin dituzte ikusi.
- **Irekita.** Identifikatutako erabiltzaile guztiak sar daitezke sistemara. Behin ikasturtea irekita, "Bai" batez agertuko da, Praktiges webgunetik kudeatzen duten ikastegien zerrendan.
- **Itxita.** Kudeaketa amaitutzat jotzen da, eta praktikaren bat daukaten erabiltzaileak soilik sartu ahal izango dira kontsulta moduan edo borondatezko praktikak egin izanaren edo tutoretza lana egin izanaren ziurtagiria eskatzeko.

**Arduraduna.-** Ikastegi mailan praktiken kudeaketaz arduratzen den pertsona (irakaslea).
Ikastegiko praktiken arduraduna datu orokorren erlaitzean "Arduraduna" eremuan sartzen dugunean, arduradun hori ikastegiko irakats eskaintzan erregistratutako plan bakoitzari atxikita geratuko da; hortaz, "Titulazio arduraduna" erlaitzaren "Arduraduna" eremuan lehenetsita agertuko da.

Arduraduna datu orokorretan aldatuz gero, titulazio arduradunaren erlaitzean ere aldatuko da eta hori berrestea eskatuko zaigu.




“Arduraduna” eremuaren azpian bere posta elektronikoa jartzeko eremu bat dago eta zentroak enpresa bat baliozkotzen duenean sistemak automatikoki bidaliko duen posta elektronikoa izango da.

**Ikasturte hasiera eta amaierako datak:** Ikastegiko arduradun den erabiltzaileak erabaki ahal izango du zer datatan hasi eta amaituko den ikasturtea. Data horiek praktiken hasiera eta amaiera balidatzeko erabiliko dira, eta aurreko ikasturteetakoekin gainezarri daitezke.

**Iraungitze-data erregulatzea:** Praktiken eskaintzaren iraungitze-data arautzen du. Hasiera-data eta amaiera-data lehenetsita agertzen dira.

**Praktika hitzartuak SOILIK gestionatzen ditu:** Besterik adierazi ezean, “Ez” agertuko da. “Bai” jartzen bada parametroak sarrera mugatzen dio ikasleari, soilik parametrizatutako baldintzak betetzen dituzten eta adostutako praktikak dituztenei sartzen utziz.

**Instruktorearen azken txostena gestionatzen du**: Besterik adierazi ezean, “Ez” agertuko da. “Bai” jartzen bada parametroak instruktoreen azken txostenaren informazioa zentrotik sartzea baimentzen du. Itxiera egiten denean “Bai” agertuko da automatikoki parametro honetan.

**Instruktoreak txostena bukatu behar du**: Lehenetsita “Ez” agertzen da. “Bai” jartzen bada, baldintza izango da instruktoreak bere txostena egina izatea, ikasleak egindako kanpoko praktika akademikoaren ziurtagiria eskatu ahal izateko.

**Instruktoreari mezu automatikoak bidaltzea**: “Ez” jartzeak esan nahi du hasierako mezua, soilik bidaltzea, erabiltzailearen eta pasahitzaren informazioa duena.

**Enpresei mezu automatikoak bidaltzea:** “Ez” markatuta helbide alternatibo bat sartzen uzten du mezu automatikoak bertan jasotzeko, barne dela erabiltzailearen jakinarazpena eta enpresaren gakoarena.

**Enpresetara izena emandako hautagaien bidalketa:** Besterik adierazi ezean “Ez” agertuko da, “Bai” jartzen bada enpresak ikasleak ikusi ditzake izena ematen duten heinean.

**Esleipenarekin**: Botoi honek aurrez aipatutako "Bai" aukera klikatuta aktibatzen da eta "Bai" jartzen bada enpresaren profilan "Esleitu" botoia sartzen du izena eman duten ikasleen zerrendan.

**Mezu automatikoak bidaltzea:** "Bai" jartzean, baimentzen du enpresaren eskaintzako kontaktuko pertsonari mezu automatikoak bidaltzea hautagaiak izena ematen duenean.

**Aurreko ikasturteen itxiera data**: Aurreko ikasturte edo ikasturteen itxiera programatzea uzten du azken eguna uneko ikasturtearen abuztuaren 31a delarik. Data hau aldatu daiteke aurrez jarritako dataren aurreko edo ondorengo egun bategatik betiere jarritako data pasa ez bada edo mugako data pasa ez bada (uneko ikasturtearen abuztuaren 31).

**Aurreko ikasturteen itxieran balidatutako praktikak baliogabetzea:** "Balidatua" egoeran dauden praktikak baliogabetzen ditu ikasturtearen itxieran.

**Erakutsi ikasleei enpresaren harremanetarako datuak:** "Bai" jartzean, ikasleak ikusi ditzake enpresaren kontakturako datuak, bai kontakturako pertsona, bai telefonoa baita posta elektronikoa ere.

**Irakasle tutorearen esleipena ikasleen arabera:** "Bai" jartzean, praktikan esleitutako ikaslea baimentzen du tutore irakaslea hautatu eta esleitzeko.




**Klausula partikularrak:** Ikastegiaren berezko klausulak hitzarmen guztietan eransteko, hitzarmenaren amaieran sartuko dira, sinadurak baino lehen eta "KLAUSULA PARTIKULARRAK" eremuaren barruan.

## 2. Parametroak - Sarbidea

Erlaitz honetan, ikastegiaren irakats eskaintzako plan guztiak eta bertan ematen diren master guztiak biltzen dira. Plan bakoitzaren  gezietan sakatuz gero, ikastegiko arduradunak plana

kudeatzen den ala ez markatzeko aukera izango du. Baiezkoa bada, eremu hauek bete beharko ditu: "Gainditutako kredituak" eta "Gehieneko orduen kopurua" eta "Ikusgai enpresarentzat".




"EZ" markatuz gero, sistemak ez du kudeatuko.




**Gainditutako kredituak:** Eremu honen bitartez, erabiltzaileak jakingo du ikasle batek plan horretan zenbat kreditu eduki behar dituen gaindituta, borondatezko praktiken kudeaketara sartu ahal izateko (sarbidea balidatzea).

**Gehieneko orduen kopurua:** Eremu honetan, ikasle batek titulazio jakin batean borondatezko praktiketan gehienez egin ditzakeen orduak adierazten zaigu. Zurian utziz gero, gehieneko orduen kopurua ez da kudeatuko.

**Ikusgai enpresarentzat:** Eremu honetan ikastegiak kudeatzen dituen titulazioen artean, enpresarentzat ikusgai izango direnak aukeratzen uzten du.

## 3. Parametroak. Titulazio arduraduna

Atal honetan, titulazio bakoitzeko arduradun bat txertatu ahal izango da eta pertsona hau izango da hitzarmenaren sinatzailea.




## 4. Parametroak. Aurrehautapena

Erlaitz honetan hainbat aldagai biltzen dira, moduluaren funtzionamendua ikastegi bakoitzaren kudeaketara egokitzeko.

Jarraian, kudeatzen diren aldagaiak deskribatzen dira:

**Aurrehautapenaren aldizkotasuna:** Aldagai honen bitartez adieraziko dugu moduluak berak aurrehautapena maiztasun batez egitea edo ikastegiko arduradunak erabakitzea noiz egin behar den (eskaripean).




Balio horrek ondorioak izango ditu praktikak baliozkotzeari buruz. Aukeratutako balioa "Eskaripean" bada, praktika bat baliozkotu, eta automatikoki argitaratuko da. Kontrakoa eginez gero; hau da, zabalgarrian sistemak maiztasun jakin batez izena emandako ikasleen aurrehautapena egitea ezartzen badugu, ikastegiko arduradunak praktika bat baliozkotzen duenean, praktika argitaratzeko zain geratuko da, eta aldia zehazten duen denbora igarotzean argitaratuko da.

**Praktikarik gabeko ikasleak lehenestea:** Ordenatzeko irizpidea aplikatu aurretik, sisteman sartu den eta praktikarik egin ez duen ikaslea lehenesten du.

**Ordenatzeko irizpidea:** Irizpide bat hautatu behar da, sistemak erabiliko duena praktika baterako hautagai diren edo itxarote zerrendan dauden ikasleak sailkatzeko. Erabil daitezkeen balioak hauek dira:




**Ikasle kopurua:** Ezartzea enpresak zenbat ikasle izango dituen eskuragarri hautaketa egiteko. Aukera hauek daude:




Ikasle bakar bat hautatuz gero, aurrehautapeneko algoritmoa praktikak esleitzen ariko da (aurrehautapeneko algoritmoak ikasleak tratatuko ditu, eta ikasle bakoitzeko izena eman duen praktika esleituko dio, lehentasun gehiagorekin). Kasu honetan, ikasleak lehentasuna adierazi behar du, praktiketarako izena ematean.

Gainerako kasuetan, berriz, aurrehautapenerako algoritmoak aldagai honetan adierazitako ikasle kopurua ezarriko du, ikasle hautagai gisa. Izena eman duten ikasle gehiago egonez gero, itxarote zerrenda sartuko dira.

Zabalgarrian "Enpresak eskatutakoak" aukera hautatzen badugu, enpresek egingo duten edo ikastegiko erabiltzaile arduradunek sortuko duten eskaintzan, "Ikusi beharreko curriculum kopurua" eremua agertuko zaigu aukera gisa. Betetzen ez bada, izena eman duten guztien curriculumak ikusiko dira, aurrehautapen irizpideen arabera ordenatuta.

**Ikasle esleituaren baimenak:** Aldagai honen bidez, ikastegiko arduradun erabiltzaileak praktika esleituta duen ikasle bati eskaintzen zaizkion aukerak zehaztu ahal izango ditu, honako hauen artean aukeratuta:

- Praktika eskaintza ikusi
- Praktiketan apuntatu nahiz eta aldi berean gertatu
- Aldi berean ez diren praktiketan apuntatu
- Ezin du praktika eskaintza ikusi ezta apuntatu




**Praktikak dituen ikaslearen baimenak:** Aldagai honen bitartez, ikastegiko arduradunak zehaztuko du **praktikaren bat egina duen ikasle batek** izena eman dezakeen beste praktika batzuetan. Ikasle bati esleitutako praktika amaitzean, "Berrikusteko zain" egoeran geratuko da ikaslea. Hainbat aukera daude:

1. **Bai.** Praktika bat amaituta duen ikasleak beste praktika batzuetan izena emateko aukera izango du, arduradunak haren sarbidea berriro baliozkotu behar izan gabe (ikaslea "Berrikusteko zain" egoeran egongo da, baina argitaratutako praktika guztietan izena emateko aukera izango du).
2. **Ez.** Ikasleak ezingo du izena eman beste praktika batzuetan, harik eta ikastegiko arduradunak esplizituki BALIDATZEN duen arte.
3. **Baldin eta, >=3 aste badaramatza argitaratuta.** Dagoeneko praktika bat amaituta duen ikasleak ("Berrikusteko zain" egoeran egongo dena) iragarki taulan 3 aste edo gehiago daramaten praktiketan soilik eman ahal izango du izena.
4. **Baldin eta, >=2 aste badaramatza argitaratuta.** Aurreko kasuan bezala, baina 3 izan beharrean 2 aste izango dira.

**Hautapen aldia:** Ikasle hautagaien zerrendara sartzeko eta praktika egiteko ikasle bat hautatzeko enpresak daukan denbora tartea da. Denbora hori igaro ostean hautaketarik egin ez bada, praktika iragarki taulara itzuliko da. Lau aukera eskaintzen dira: 1, 2, 3 edo 4 aste.

**Titulazioa:** Aldagai honen bidez aukeratu daitezke ikasleei praktikak egin ahal izateko titulazio zenbat ikasturte gaindituta izatea eskatuko zaien.




## 5. Parametroak – Ikaslearen memoria

Erlaitz honetan, ikastegiko arduradunak unibertsitate mailan ezarritako protokoloaren galderak ikusi ahal izango ditu (behean zerrendatutakoak) dagokion botoia sakatuta; era berean, "Berria" botoia sakatuta, ikastegiaren berezko galderak erantsi ahalko ditu, ikasleak egindako praktika bakoitzeko bete beharreko galdetegian. Gehienez ere, hiru galdera txertatu daitezke, eta erantzun motaren araberako hurrenkeran jarriko dira.

Ikasleen memoriaren galdera orokorrak:

1. Praktikaren ekarpena ikasketaren mailan
2. Hobekuntzarako iradokizunak
3. Praktika egindako enpresaren balorazio orokorra
4. Enpresako instruktorearen balorazioa.
5. Unibertsitateko tutorearen balorazioa.
6. Praktiken programaren arduradunaren balorazioa.
7. Enpresak kontratatu zaitu praktikak egiten ari zinela edo praktikak amaitutakoan?
8. Beste enpresa batek kontratatu zaitu praktika egiten zenuen bitartean edo ondoren?
9. Halakorik badago, praktikak egitean sortutako arazoen zerrenda xehatua. Arazoak konpontzeko jarraitutako prozedura (arazoren zerrenda)
10. Praktikaren ebaluazio orokorra
11. Iruzkina




Hiru erantzun mota jasotzen dira: Tiradera, BAI/EZ edo 1etik 5era




## 6. Parametroak – Instruktorearen inkesta

Ikasleari buruzko inkesten kasuan bezela, instruktorearen figurari dagokionez.




Instruktorearen inkestako galdera orokorrak:

1. Ikasteko gaitasuna
2. Taldean lan egiteko gaitasuna
3. Aldaketei egokitzeko gaitasuna

4. Kritiken harrera
5. Sormena eta ekimena
6. Inplikazio pertsonala eta motibazioa
7. Egindako lanaren kalitatea
8. Praktikaren balorazio globala
9. Praktika egin duen pertsona kontratatzea gomendatuko zenuke?
10. Iruzkina

## 7. Parametroak. Titulazioko gaitasunak

Kudeatutako titulazio bakoitzeko, hizkuntza anitzeko eremuetan oinarrizko gaitasunak, orokorrak eta espezifikoak parametrizatu ahal izango dira geziekin irekiz (››).




## 8. Alerten jakinarazpena

Erlaitz honetatik aukera ematen da PPAren posta elektronikoan automatikoki sortuko den mezu bat jasotzea, hautatutako alerten berri emango duena hauek gertatzen direnean.




Ikasturte akademiko berria "irekia" egoeran uzteko ezinbestekoa da "Parametroak"-eko erlaitz guztiak parametrizatuta egotea.

## ALERTAK

Atal honetatik, mezu batzuk erakutsiko dizkigu aplikazioak, egiteko dauden zeregin batzuen berri emateko. Alerta hauek kudeatzen dira:

- Balidatu gabeko praktikak daude.
- Hitzarmena ateratzeko zain dauden praktika esleituak daude
- Aurreko ikasturteetako irakasle-ziurtagiri batzuk prozesatzeko zain daude
- Prozesatu gabeko irakasle-tutoreen ziurtagiriak daude
- Aurreko ikasturteetako praktika batzuk ebaluatu gabe daude
- Berriro aztertzeko ikasleak daude
- Aurreko ikasturteetako instruktore-ziurtagiri batzuk prozesatzeko zain daude.
- Ikasleen ziurtagiri batzuk prozesatu gabe daude aurreko ikasturteetan.
- Prozesatu gabeko begiraleen ziurtagiriak daude.
- Balidatzeke dauden erakunde laguntzaileak daude
- Balidatu gabeko praktikak daude.
- Prozesatu gabeko ikasleen ziurtagiriak daude
- Zaharkituta geratu diren praktika balidatuak daude




Alerta bakoitzean ageri diren geziek (››) egin beharreko zereginera bideratuko gaituzte, menuaren aukeretan.

## ALBISTEAK

Aukera honetan, ikastegiko arduradun erabiltzaileak ***Albisteak*** izeneko eremua administratzeko aukera izango du (testuak informazio gehigarria duen URL bati lotuta egon daiteke), eta aukeratutako talde bati edo guztiei bistaratuko zaie, datek mugatutako epeen barruan.

"Albisteak" aukera sakatzean, egin ditugun albisteen eta abisuen zerrenda ikusiko dugu, eta, "Berria" botoia sakatzean, beste bat egiteko eta argitaratzeko aukera izango dugu.




"Erakutsi hasieran" eremuaren "Bai" aukerak hasierako pantailan ikusiko den abisu bat sartzea ahalbidetzen digu,




eta aukeratutako kolektiboek onartu beharko dute, aurrera jarraitzeko.




## TAULA OROKORRAK

Atal honetan, borondatezko praktiken modulurako erabilera orokorreko taulak erakusten dituen atala.

## Taula orokorrak. Tutoretzen protokoloa

Aukera honetan, ikastegiko arduradunak zeinahi praktikaren tutoretza lanean egin beharko liratekeen oinarrizko tutoretzen multzoa edo egitura ezarri ahal izango du.




## Taula orokorrak. Espezialitateak-eremuak

Espezialitateak ez dira erabiltzen ari. Garai batean, praktikaren ezaugarri bat zen, baina praktika titulazio bakar bati zegoen lotuta.




## IKASLEAK

Programa honetan, ikastegiko arduradunak ikasleei buruzko bilaketak eta kudeaketak egin ahal izango ditu.

## Ikasleak. Ikasle-zerrenda

Bi zerrenda identifikatu dira:

1. **Sartu direnak:** moduluan sartzen ahalegindu diren ikasleak dira, bakoitza bere egoerarekin.

   Sistemak ikasleen balidatze automatikoa kudeatzen du; hau da, ikasle batek ikastegi eta ikasturte akademiko baterako sarbidea sakatzen duenean, sistemak berrikusiko du

ikasle horrek modulu horretan sartzeko behar besteko kreditu gaindituta dituen. Bete ezean, ***Balidatu gabe*** markatuko dio, eta, betez gero, berriz, ***Balidatua***. Era berean, matrikularen egoera aktibo dagoen ere berrikusten da. Ikasleak praktika amaitu badu, esleitutako praktikaren datuetara sartzeko aukera izango du (memoria eta praktikaren ziurtagiria eskatzea), baita ikasturte akademikoa itxita dagoenean ere.

Ikasleek matrikulatuta egon beharko dute ikastegian kudeatutako planen batean (KUDEATUTA=BAI).




Sistemak bilaketaren emaitza erakutsiko du erregistro kopurua emanez, eta kalkulu orri bat sortzeko aukera ematen du bilaketaren emaitzarekin ( ).

Erakutsitako ikasle bakoitzeko, gainditutako kreditoak ikusten dira (oraingo titulazioan sartzeko baliagarriak izan diren aurreko titulazioetako kredituak kontuan hartzen dira), matrikulatutako kredituen kopurua, borondatezko praktiken egindako ordu guztiak (ikasturte ezberdinetan), ikaslearen egoera, ibilbidea (ikasturte ezberdinetan esleitutako edo/eta gauzatutako praktikak), izena emanda (zein praktikatan dagoen izena emanda) eta curriculuma (curriculuma bistarazten da, ikasleak sisteman txertatu dituen datuak).

Horrez gain, ikasle baten xehetasunetara jo daiteke eta haren egoera, asegurua eta oharren eremu bat kudeatu.

Ikasle bat balidatzen denean, egoera horretan jarraitzen du praktika bat egin edo amaitu arte. Sistemak praktika bat amaitutzat jotzen duenean (amaiera data igarota), praktika “amaituta” egoerara pasako da, eta ikaslea, berriz, “berriro aztertzeko” egoerara.
Ikasle bat ikastegi eta ikasturte batera sartzen denean, hari sarbidea baimentzeko edo ukatzeko, berrikusten da ***balidatuta*** edo ***berriro aztertzeko*** egoeran dagoen.

Ikaslea **balidatuta** badago eta praktika esleitua badu, ***Esleitutako ikaslearen baimenak*** parametroaren balioa kudeatzen da.

**Kontsultara sartzerik ez bada,** mezu batez jakinaraziko da.

**Sartu badaiteke,** balidatutako praktika guztien zerrenda agertuko da, eta izena ematen duen praktika bakoitzeko egiaztatzen da izena eman dezakela, parametro honen balioa kontuan hartuta.

Ikaslea **berriro aztertzeko** egoeran badago, *Arduradunik gabe izena emateko* parametroaren balioa kudeatzen da.

**Ez** egoeran badago, ez zaio praktiken zerrenda aterako.

Izena emateko aukera badu, berrikusten da titulaziorako praktika orduek ez dutela gainditzen parametroan adierazitako balioa, ikastegiko, ikasturteko eta planeko.

Ikasle batek hainbat praktikatan izena eman badu, bat esleitzen zaionean, hautagai izateari utziko dio besteetan.

2. **Balizkoak:** borondatezko praktikak egiteko aukera izan dezaketen ikasleak dira.

   Ikastegiko arduradunari une jakin batean kudea dezakeen ikasleen kopuruari buruzko ikuspegia emateko, zerrenda honetan honako baldintza hau betetzen duten ikasleak ageri dira:

   **GAINDITUTAKO KREDITUAK + MATRIKULATUTAKO KREDITUAK>= gutxieneko kredituak plan bakoitzeko**

Plan bakoitzeko gutxieneko kreditu kopurua da, ikastegiko arduradunak parametroetan “Sarbidea” erlaitzean, kudeatutako plan bakoitzeko markatzen duen balioa.

## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Erakunde laguntzailearen erregistroa bakarra da borondatezko eta nahitaezko praktiketarako, gradu amaierako lanetarako eta lan eskaintzetako. Ikastegi batean erakunde laguntzaile bat balidatuz gero, ikastegi horretako edozein modulurekin egin dezake lan. Erakunde laguntzaile baten datuak aldatzen ditugunean lau moduluetako oinarria den poltsa bakarrean egiten dugu aldaketa.

Beraz, erakunde laguntzaile baten erregistroan posta elektronikoko helbidea, kontakturako pertsona edo beste edozein datu aldatzeak eragina izango du erregistro horretan ikastegi guztietan eta modulu guztietan.

Atal honetatik, aplikazioak ikastegiarekin lankidetzan jardungo duten erakunde laguntzaileak kudeatzeko aukera eskaintzen du. Erakunde laguntzaileen informazioa kudeatzeko, informazioa erakunde eta erakunde laguntzaileetan banatu edo egituratu da. Erakunde kontzeptua, hain zuzen, legezko datuei egongo da lotuta (IFK, izen soziala...), eta erakunde laguntzaile kontzeptua, berriz, ikastegiarekin lanean jardungo duen enpresari.

### Erakunde laguntzaileak. Erakundeak

Aukera honen bitartez, erabiltzaileak bere ikastegian lanean dihardutén erakundeen zerrenda egin dezake. Horretarako, "Bilatu"-n sakatuz.




Jarraian, erakunde bakoitzeko jasotako datuak agertuko dira:




## Erakunde laguntzaileak. Erakunde Laguntzaileak

Aukera honetan, enpresak bilatu eta horien zerrenda egin daiteke, "Bilatu" sakatuz, eta enpresa bat sar daiteke ikastegian, "Berria" sakatuz.

Aukera hori sakatzean, hurrengo galdetegia agertuko da:




"Praktikekin" bilaketa eremuaren **Bai** aukeraren bidez, praktika guztiak biltzen dira, ezabatuta edo iruzur egoeran daudenak izan ezik.

Bilaketa egitean, sistemak erregistroen kopurua adieraziko digu, eta bilaketaren emaitza kalkulu orri batean deskargatzeko aukera ere emango digu ( ).

Emaitzaren ilara bakoitzeko (››), honako datu hauek jasoko dira:




Aplikazioak enpresa berri bat txertatzeko aukera ematen du. Horretarako, BERRIA botoia sakatu beharko da. Botoi hori sakatzean, aplikazioak sartu nahi den enpresaren IFK eskatuko digu (kontuan izan behar da IFK edo enpresa beste ikastegi batean erregistratuta egon daitekeela; horregatik, enpresa bat sartzeko hainbat pauso eman behar dira).




IFZ txertatu ondoren, BILATU sakatuko dugu.

IFZ dagoeneko sisteman erregistratuta badago, IFZ horri lotutako enpresa guztiak agertuko zaizkigu, eta horietako bat hautatzeko aukera izango da, geziekin (››). Hautaketa egitean enpresa balidatzen da edo IFZ horri lotutako beste enpresa bat txertatzea. IFZ hori ez badago, aplikazioak inprimaki bat erakutsiko du, beharrezkoak diren datu guztiak jasotzeko.

Datuak sartu, eta GORDE botoia sakatzean, sistemak, barrutik, erakunde bat sortzen du eta berari lotutako erakunde laguntzaile (enpresa) bat (enpresa ikastegiko arduradunak sartu duenez, balidatuta sortzen da).

## Erakunde laguntzaileak. Unitateak/Atalak

Kontzeptu hau enpresa baten unitateak edo atalak kudeatzeko erabiltzen da. Aukera hori sakatzean, pantaila hau agertuko da:




## Erakunde laguntzaileak. Balidatu erakunde laguntzaileak

Aukera honetan, ikastegian balidatzeke dauden enpresak erakutsiko dira (enpresa batek ikastegi batera sartzea eska dezake, eta ikastegiko arduradunak eskaera balidatu edo ukatu beharko du). Enpresak mezu automatiko bat jasoko du, balidatua izan den edo ez adierazteko. Balidatuz gero, erregistratzean emandako helbidean jasoko du mezu elektroniko bat, GAURera sartzeko gakoekin. Horrela, sisteman sartu eta eskaintza txertatu ahal izango du.

Onartua ez den enpresak mezu elektroniko bat jasoko du, ukapenaren berri emanez.




Ikastegiko arduradunak enpresa baten erregistro okerra ezabatu dezake, baldin eta balidatu ez bada eta erregistroan praktikarik ez badago. Horrelakoetan, enpresaren bilaketa egitean, ezabatzea ahalbidetzen duen **X** bat agertuko zaigu.




## PRAKTIKAK

Menuko aukera honetatik, hiru funtzio hauek kudeatzen dira:

1. Praktiketako eskaintza
2. Balidatu praktikak
3. Praktiken eskaintzen kopia

Jarraian, bakoitzaren nondik norakoak azalduko ditugu.

## Praktikak. Praktiketako eskaintza

Sistemak, ikastegian eta ikasturte akademikoan kudeatutako borondatezko praktikak bilatzeko eta horien zerrenda egiteko aukera ematen dio erabiltzaileari. Menuko aukera hau sakatzean, moduluak pantaila bat erakusten digu, non bilaketa egiteko iragazkiak aplikatu daitezkeen edo borondatezko praktika bat txertatu daitekeen, BERRIA botoia sakatuz.




Sistemak bilaketan aurkitutako erregistroen kopurua erakutsiko digu, eta emaitza hauekin osatutako kalkulu orria sortzeko aukera ere emango digu ( ).

Praktika bakoitzaren xehetasunera joan daiteke, ezkerreko gezien (>>) gainean sakatuta:

**Zortzi atal/irekitzeko agertzen dira: datu orokorrak, beste datu batzuk, eskakizunak, irakasle tutoreak, begiraleak, tutoretzak, aurrehautapena – esleipena eta gertaerak.**




### 1. Praktiketako eskaintza. Datu orokorrak

Praktikaren egoerak:
**Balidatu gabe:** enpresak edo ikastegiko kudeatzaileak txertatu eta gorde duena.
**Balidatua:** egoera horretan, praktika ikasleen oholean argitaratzen da.
**Argitaratzeko zain:** egoera horretan geratzen dira Ikastegian balidatutako praktikak dagokien aldia bete arte, non eta beren aurrehautapen aldia "eskaripean" ez den.
**Hautatze prozesua:** praktikaren egoera, enpresak ikaslea hautatu bitartean.

**Esleitua:** egoera horretan geratzen da, hitzartutako praktika bat esleitzean, "aurrehautapena - esleipena" irekitzekoan ikasle bati praktika bat esleitzean, enpresak hautagai bat esleitzean eta esleitutako ikasleak praktika egiten ari den bitartean.
**Amaitua:** praktika egoera horretan geratzen da amaiera data betetzean.
**Ikasleak betea:** praktika amaituta eta ikaslearen azken memoria egina dagoenean.
**Enpresak betea:** enpresa-begiralearen praktikaren amaierako txostena egina dagoenean.
**Betea:** enpresa-begiralearen amaierako txostena eta ikaslearen amaierako memoria eginak daudenean.
**Ezeztatuta:** praktika ezetsita dagoenean.
**Iruzurra:** praktikak espero zen emaitza eman ez duenean eta hori jasota utzi nahi denean.
**Balidatu gabea:** ukatua izan den praktikaren egoera.

Jarraian, praktikaren datu orokorretan derrigorrez bete beharreko eremu batzuk deskribatzen dira:

**Titulua:** ez da hitzarmenean agertzen, baina bai ikaslearen espedientean.

**Erakunde laguntzaile mota: "Antolakuntza unitatea"** mota aukeratuko da erakundea UPV/EHUko antolakuntza unitate bat denean. Kasu honetan ez du onartuko "Unibertsitateak poltsa eta zerga-betekizunak ordaintzea" eta "Unibertsitateak Gizarte Segurantzaren kotizazioa ordaintzea" aukerak markatzea.
Aukeratutako erakundea "Enpresa" bada mezu bat agertuko da aukera hauek ez markatzeko.




**% jabetza intelektualean:** Jabetza intelektuala lagatzeko akordioaren dokumentuari lotutako eremua.
**Sinatzailearen izena eta kargua**: Hitzarmena sinatuko duen pertsonaren datuak eta kargua zehazten ditu.
**Lanen zerrenda:** enpresak edo ikastegiko arduradunak zehaztuko du. Horretarako, "Lan berria" botoia sakatuz eta egindako aldaketak gordez.

**Praktika hitzartua: Bai.** Ikaslearen jaiotza data gehitzen da derrigorrezko eremu gisa.

Nahitaezkoa da **praktika plan batean eskaintzea**, gorde ondoren.




Parametroetan adierazitako zentroaren planak bistaratuko dira, kudeatuko direnak (**Kudeatu Bai**, Sarbide erlaitzean), eta praktika zer planetan eskainiko den zehaztuko da, geziaren bidez titulazioa hautatuz eta gezien bidez mugituz (››) "Eskainitako planetan".

## Lotutako botoiak:

**Gorde:** Egindako aldaketak gordetzeko botoia. Sistemak egiaztatuko du derrigorrezko datuak bete direla (* batekin adierazitakoak) baita bata edo bestea aukeratu behar den eremuetan ere (esate baterako, probintzia eta probintzia testua).

**Ezabatu:** Praktika sistematik ezabatzen du egoera "Balidatu gabe" edo "Balidatzeko zain" denean bakarrik.

**Ezeztatu:** Praktika ezeztatzea. Soil-soilik praktika egoera hauetakoren bat dagoenean: "Balidatua", "Hautapen prozesuan", "Esleitua" edo "Argitaratzeko zain".

**Iruzurra:** Praktikaren iruzurra. Soil-soilik praktika egoera hauetakoren bat dagoenean: "Balidatua", "Hautapen prozesuan", "Esleitua" edo "Argitaratzeko zain".

**Praktika balidatu:** Praktika "balidatzeko zain" egoeran dagoenean ikusten da. Botoi hori sakatzean, automatikoki balidatuko da. Ikastegian, aurrehautapenaren maiztasun gisa "eskaripean" aukeratu bada, praktika zuzenean pasako da iragarki taulara. Hala izan ezean, "Argitaratzeko zain" egoerara pasako da, eta aurrehautapena egokitzen denean, iragarki taulan argitaratuko da.

**Praktikari uko egin:** Praktika egoera "ez-balidatuan" uzten du. Egoera horretan, praktika ezabatu edo berriro balidatu daiteke.

**Esplizituki argitaratu:** Praktika "Balidatu" egoerara igarotzen da. Soil-soilik bistaratuko da, baldin eta praktikaren egoera "Argitaratzeko zain" bada, eta berehala balidatzeko erabiliko da.

**Esleipena kendu, berreskuratu:** Praktikaren esleipena kendu ondoren, praktika "Balidatu" egoeran geratuko da, baldin eta aurrehautapenaren maiztasuna "eskaripean" bada. Bestela, aurrehautaturik egon ezean, "argitaratzeko zain" egoeran geratuko da, eta aurrehautaturik

egonez gero, berriz, "hautapen prozesuan" egoeran geratuko da. Esleipena kendu zaion ikasleak esleipendun izan aurreko praktikak berreskuratuko ditu. Praktika esleituta dagoenean bistaratuko da.
**Esleipena kendu:** Aukera hau aktibatuta egongo da, praktika "esleituta" egoeran dagoenean. Haren ondorio nagusia ikaslearen esleipena ezabatzea da. Aurrehautapenaren maiztasuna "Eskaripean" bada, "Baliozkotua (argitaratua)" egoerara pasako da, eta bestela "Argitaratzeko zain" egoerara.
**Berria:** Praktika berri bat txertatzea, datuak hutsik dituela.
**Luzapena txertatu:** Botoi hau aktibatuko da praktika esleituta badago, ikasleak edo/eta enpresak beteta edo beteta edo amaitua, hau da, praktikak ikasleren bat esleituta du edo izan du. Luzapena txertatzeko botoiari emanez gero, "balidatzeko zain" geratuko da, balidatzean balidazioak gauzatzen dira: praktika arrunt batekoak + ikaslea esleipenduna izan ote daitekeen ikastegiko arduradunak zehaztutako parametro balioen arabera. Jatorrizko praktika bati bakarrik txertatu diezaiokegu luzapena.
**Praktika berria, aurrekoa oinarri gisa erabilita:** Praktika berri bat sortuko da jatorrizko praktikaren datu berberak baliatuta. Ez dira kopiatuko eskainita dagoen titulazioak.
**Itzuli:** Atzera itzuli.
**Esleitura itzuli:** "Esleitua" egoerara bueltatzeko aukera ematen die praktikei, honako egoeratan: amaituta, enpresak beteta, ikasleak betea eta betea.
**Inprimatu:** Praktikaren datu orokorren eremuak inprimatzeko aukera ematen du, datuak sartuta egon ala ez.

## 2. Praktiketako eskaintza. Beste datu batzuk

Hemen praktikan derrigorrezkoak ez diren eremuetako datuak bete ahal izango dira, besteak beste, honako hauek:

**Oinarrizko gaitasunak, gaitasun orokorrak eta gaitasun espezifikoak** titulazio bakoitzeko zehazten dira parametroetan (tituluaren gaitasunak), eta praktika esleitutakoan agertuko dira, testua barruan dutela. Testua aldatu ahal izango da ikaslea esleitu ondoren.

"**Notak**" eremuak, hitzarmen espezifikoei azalpenak gehitzea ahalbidetzen du.

**"Etenda data hau arte**" Eremua ikusgarri eta aktibo egongo da praktikaren egoerak hauek direnean "Balidatua", "Balidatzeke" eta "Hautatze-prozesuan". Praktika batek momentu horretan duen egoera mantentzea utziko du eremuak jartzen duen data bete arte. Egun horretan beste praktiken ibilbidearekin bat egingo du, ezarritako parametroen arabera.




## 3. Praktiketako eskaintza. Eskakizunak

Erlaitzen honetan praktika bati lotuta egon daitezkeen eskakizunak jasotzen dira.




## 4. Praktiketako eskaintza. Irakasle tutoreak

Praktikari atxikitako irakasle tutorearen kudeaketarako erlaitza da hau. Historikoa gordetzen da, baina bakarra kudeatuko da, alegia, batek bakarrik txertatuko du praktikaren ebaluazioa.

Praktikari irakasle tutore bat atxikitzeko, BERRIA sakatu beharko dugu.




Moduluak irudian ageri den moduko inprimaki bat erakutsiko digu, bertan IRAKASLE TUTOREA eremuari lotutako lupa bat dago. Lupa horretan, ikastegiko arduradunak txertatu dituen irakasleen zerrenda ikusiko dugu. Zerrenda hori ikastegika eta ikasturteka dago jarrita.




## 5. Praktiketako eskaintza. Instruktoreak (Begiraleak)

Erlaitz honetan, instruktoreak atxiki daitezke praktikara. BERRIA sakatzean, irudian ageri den bezelako inprimaki bat erakutsiko digu aplikazioak, eta instruktorearen eremuaren ondoan lupa bat ikus daiteke.




Lupa sakatzean, enpresak edo ikastegiko arduradunak enpresari atxikitako instruktoreen zerrenda ikusiko dugu. Instruktorea praktikari atxikitzeko unean, GAURen erabiltzailerik duen ala ez berrikusten da. Ez badauka, sortu egin behar da, eta jakinarazpena bidaliko zaio mezu elektroniko baten bidez.

## 6. Praktiketako eskaintza. Tutoretzak

Praktika bat txertatzen eta balidatzen denean, tutoretzako protokoloan finkatutako tutoretzak kopiatzen dira.

## 7. Praktiketako eskaintza. Aurrehautapena - esleipena

Erlaitz hau praktika balidatzean ikusten da. Bi taula bistaratzen dira:

### 1. Praktiketan izena emandako ikasleak

Praktikan izena eman duten ikasleen zerrenda agertzen da.




### 2. Aurrehautapenean parte hartzen duten ikasleak

Praktikari atxikitako hautagaiak edo itxarote zerrendan daudenak zerrendatzen dira.
Itxarote zerrendan dauden ikasleak hautagai izatera igaro daitezke, ([H]) botoia sakatuta.

**Aurrehautatuak ezabatu** botoiak aurrehautapenean dauden ikasle guztiak ezabatzen ditu, praktika aurrehautatutako ikaslerik gabe eta "Hautapen prozesuan" egoeran, hortaz, "Praktika argitaratu" botoia aktibatzen da, eta balidatu egoeran dauden ikasleen taulara igaroko da berriro.



Aurrehautapen automatikoko maiztasuna duen praktika bati ikasle bat eslei diezaiokegu zuzenean eta aurrehautapen prozesua martxan jar dezakegu enpresarentzat ("Exekutatu aurrehautapena" botoia sakatuta).

"Eskaripean" parametrizazioa hautatu badugu, botoi horrek aurrehautapen prozesura aktibatzea ahalbidetzen du, une horretan ikasleak izena emanda dituzten praktika balidatu guztietan.



Ikaslea esleituta duten praktiken kasuan, ikastegiko arduradunak ikaslearen ziurtagiria sor dezake, aldez aurretik eskaerarik egin gabe. Premiazko botoi horrek ziurtagiri bat ematen du, egiaztapenik egin gabe.




## 8. Praktiketako eskaintza. Gertaerak

Praktiketako eskaintzan, "Gertaerak" izeneko erlaitz bat sortu da, praktika "balidatua" egoeran aktibatzen dena eta gertaera baten data eta arrazoia jasotzen dituena, baita ere beste mota batzuetako gertaerak eta hauen emaitzak erregistratu daitezke.




## Praktikak. Balidatu praktikak

Aukera honen bitartez, **balidatzeko zain** dauden praktiken zerrenda ikusiko dugu. Xehetasunetara sartuz gero, balidatzeko aukera ematen da.

Sistemak berrikusten du datak ikasturte akademikoaren barruan daudela (ikastegiko arduradunak parametrizazioan sartutako hasierako eta amaierako datak).




## Praktikak. Praktiken eskaintzen kopia

Programa honek aurreko ikasturteetako praktikak egiteko edo kopiatzeko aukera ematen du. Praktikak **balidatzeko zain** egoeran geratzen dira, eta, balidatu aurretik, lotu egin beharko dira edo zer titulazioetan argitaratuko diren erabaki (informazio hori ezin da kopiatu, irakats eskaintza edo parametroak aldatu egin baitaitezke urte batetik bestera).




## TUTOREAK

Atal hau tutoreei zuzenduta dago, bai UPV/EHUkoei (irakaslei), bai kanpokoei.

## Tutoreak. Instruktoreak (Begiraleak)

Programa honen bitartez, erabiltzaileak instruktore berriak txerta ditzake programan (enpresa bati lotutakoak) eta/edo bakoitzaren praktika karga bistaratu dezake. Enpresako erregistroarekin gertatzen den bezala, instruktoreen erregistroetako datuetan egiten diren grabazio edo aldaketa guztiak zentro guztiek ikusi eta erabiltzen duten erregistroan egiten da.

Menuko aukera sakatzean, iragazkiaren aplikazio-eremuak bistaratzen dira, eta BILATU sakatzean, txertatutako irizpideak betetzen dituzten instruktoreen zerrenda ikusiko dugu (guztiak ikusi nahi izanez gero, BILATU sakatu behar da, ezertxo ere txertatu gabe).




Instruktore bakoitzeko, lotutako erakunde laguntzailea (››), izen-abizenak, ikasle kopurua eta orduen kopurua guztira (praktika horienak) ageri dira.

Ezkerreko botoia sakatuz gero (››), instruktorearen datu pertsonalak erakusten dira. Instruktorearen datu pertsonalen azpian, instruktore horri lotutako enpresen taula bat ikusiko dugu. Enpresa berri bat atxikitzeko botoi bat ikusiko dugu, eta erakunde laguntzaile bati baja edo alta emateko aukera ere izango da.




Eskuineko botoia sakatuz gero (››), tutoretzapeko praktikei buruzko datuak ikus daitezke.




## Tutoreak. Irakasle tutoreak

Irakasleak definitzeko, lupa eta "Bilatu" botoia sakatu behar dira. Definitu ondoren, praktikaren xehetasunean ikusiko ditugu, praktikari irakasle tutorea esleitu ahal izateko, eta ikasturte batetik bestera kopiatuko dira. Programa honetatik, borondatezko praktiken tutoretza lana egiteko aukera duten ikasturteari lotutako irakasle tutoreen zerrenda zerrendatzen dugu.




Irakasle berriak txertatuko ahal izango dira, eta horietako bakoitzeko sartu edo lotutako praktikak ikusi. Menuko aukera sakatuz gero, honen antzeko pantaila bat agertuko zaigu:



Ikasturteari eta ikastegiari lotutako irakasle tutore bakoitza bistaratuko da, egoera bakoitzean praktika karga eta orduak adierazita.

**Hasi gabea:** praktika lotuta dauka, baina ikaslerik ez. Praktika balidatua dago, argitaratzeko zain edo hautatze prozesuan.
**Exekutatzen:** ikaslea atxikita dauka, baina praktika amaitu gabe dago. Praktika esleituta dago.
**Amaituak:** ikaslea atxikita eta praktika amaitu da. Praktika egoera hauetako batean egongo da: amaituta, ikasleak beteta, enpresa-begiraleak beteta edo beteta.
**Beste batzuk:** ezeztatutako praktikak edo iruzurrak.

Ikastegiari eta ikasturteari irakasle tutore berri bat atxikitzeko, BERRIA sakatu beharko da. Aplikazioak pantaila bat erakusten du eta bertan ikastegiko irakasle bat aukeratu ahal izango da lupa baten bidez.

Tutore bakoitzeko ezkerrean dauden (››) geziak sakatuz, tutoretzapeko praktiken xehetasunak ikusiko ditugu, eta, amaitutako ebaluazioaren laukitxoa markatuz gero, egindako ebaluazioa ezaba daiteke, "Ebaluazio zuzenketa baimendu" botoiaren bidez.

Ikaslearen espedientean ez da agertuko irakasleak **Praktika hau ez da balidatu behar** eremua markatzen duenean ezta ere praktika batean **Aldeko ebaluazioa** eremuan EZ batekin markatzen duenean.

Amaitutako ebaluazio batean hainbat eremu betetzen ez badira, ezagutza, gaitasuna edo trebetasunarenak, lehenetsitako testu hau agertuko da:
"Garatutako jarduera edo atazarekin lotutako ezagutzak, ahalmenak eta gaitasunak lortu dira".

Praktika baten ebaluazioa gorde daiteke, baina ezin da amaitutzat eman, aldeko ebaluazioaren eremua bete arte.




## ESLEIPENAK

Atal honetan, esleipenarekin lotutako prozedurak edo agiriak erakusten edo kudeatzen dira.

## Esleipenak. Eskuratu hitzarmenak

Aukera honen bitartez, erabiltzaileak praktiken hitzarmena (IV. eranskina), jabego intelektuala uzteko akordioa eta justifikazio memoria lortu ditzake.




## Esleipenak. Txostenak - Memoria

Menuko aukera honen bitartez, ikastegiko arduradunak ikasle eta begiraleen (instruktoreen) txostenak kontsultatu edo/eta bete ditzake. Iragazkian, gainera, galderaren batean balio txikiagoko bilaketak egiteko aukera izango da.




Begiralearen (instruktorearen) txostena eta ikaslearen azken memoria ezaba daitezke, txostena edo memoria "Gaitu/Zuzendu txostena" botoiaren bidez, bakoitzaren laukitxotik sartuta. 




## Esleipenak. Esleipena

Menuko aukera honen bitartez, erabiltzaileak bistaratuko du:
Azken aurrehautapenaren data eta egindako aurrehautapenen *loga*, baldin eta moduluak aurrehautapenen prozedura automatikoki kudeatzen badu.




## Esleipenak. Iruzkinak - iradokizunak

Atal honetan, txostena eta memoria betetzerakoan begiraleek (instruktoreek) eta ikasleek egindako iruzkinak eta iradokizunak agertzen dira.




## JAKINARAZPENAK

Atal honek analisian identifikatutako kudeaketa taldeekin posta elektroniko bidez harremanetan jartzeko aukerak eskaintzen ditu. Atal honen barruan aplikazioak bi funtzionalitate eskaintzen ditu:

### Jakinarazpenak. Jakinarazpenak taldeei

Aukera hau sakatzean, aplikazioak iragazki pantaila bat erakusten du eta bertan derrigorrezkoa da plana identifikatzea, edo bestela, “Titulazio guztiak” aukera hautatzea. Datu hori eman, eta BILATU botoia sakatzean, aplikaziotik bidalitako mezu guztiak agertuko zaizkigu.




BERRIA sakatzean, berriz, honelako inprimaki bat erakutsiko digu aplikazioak. Bertan, talde bat (taldeak aldez aurretik daude definituta) eta gaia aukeratu behar dira. Horrez gain, testuak eta dokumentuak txertatu daitezke.




"Bidali" botoia sakatzean, mezua berresteko mezu bat agertuko zaigu, bidalketa nahi den taldeari egiten zaiola egiaztatzeko, eta gero sistemak mezu elektroniko bat bidaliko dio taldea osatzen duen pertsona bakoitzari.




Jakinarazpenak taldeei balidatutako enpresei izaeraren eta sektorearen arabera egin dakizkieke. Taldeko pertsonaren batek helbide elektronikorik ez badu, pantailan mezu bat agertuko da, pertsona horren izena eta abizenak adieraziz.

**"Jakinarazpen berri bat hau oinarri gisa erabilita"** botoia bidalitako mezuetan sartuta dago eta baimentzen du mezu berbera bidaltzea talde ezberdin bati gai berdinarekin edo ezberdinarekin.

## Jakinarazpenak. Jakinarazpenak erabiltzaile bati

Aukera hau sakatzean, sistemak iragazki pantaila bat erakutsiko du, erabiltzaile motaren arabera iragazitako jakinarazpenak zerrendatzeko aukera emango duena.




BERRIA sakatzean, jakinarazpena bidali nahi zaion erabiltzaile motaren arabera, datu batzuk edo besteak osatu beharko dira. Esate baterako, ikasleren bati bidali nahi izanez gero, planaren eremuak bete beharko dira, gero ikasle zehatza bilatu ahal izateko.




## ZIURTAGIRIAK

Atal honetan, ikastegiko arduradunak erabiltzaileek egindako praktiken ziurtagiriak izapidetu ahal izango ditu.

## Ziurtagiriak. Ikasleak

Amaitutako esleipen bakoitzeko, ziurtagiri bat eskatu ahal izango dute ikasleek.
"Sortzeko zain" egoeran agertuko dira.




## Ziurtagiriak. Irakasle tutoreak

Irakasleek eskaerak egin ahal izango dituzte, sortze prozesuan ez dauden bitartean.




Eskaera bakoitzeko, ikastegiko arduradunari ikasturtean amaitutako esleipen guztiei buruzko informazioa agertuko zaio, eta sortutako txostenean kontuan hartuko ez den baten bat kentzeko aukera izango du.




## Ziurtagiriak. Eskaera duten instruktoreak (begiraleak)

Lehenetsita "Sortzeko zain" egoeran agertuko da, eta, "Bilatu" botoia sakatzean, dauden eskaerak zerrendatuko ditu, ziurtagiririk sortu gabe.

Eskaera bakoitzaren erregistrora sar gaitezke, gezien (››) bidez.




Eskaera bat egitean, instruktoreari bistaratuko zaizkio ikasturte horretan amaitutako esleipen guztiak. Ikastegiko arduradunak edozein esleipen hautatu edo deshautatu dezake, ziurtagiria sortzeko unean kontuan hartu ez dadin.

## Ziurtagiriak. Instruktoreak - sorkuntza masiboa

Menuaren aukera honetatik "Bilatu" sakatuz, inolako hautapenik egin gabe, praktikak amaitu dituzten instruktoreak zerrendatzen dizkigu eta VENIA DOCENDIak sortzeko aukera eskaintzen digu.




Inprimatu ondoren sortuko diren berriak hautatzeko aukera daukagu eta dagokion botoia erabiliz inprimatu.




## ZERRENDAK – KALKULU ORRIAK

Atal honetan, borondatezko praktikei lotutako datuak jasotzen dituzten kalkulu orriak eskuratu daitezke. Zazpi aukeretan banatzen da:

1. Ikastegian balidatutako erakunde laguntzaileeen zerrenda
2. Uneko ikasturtean praktikaren bat duten erakunde laguntzaileak
3. Aurreko urteetako burutu gabeko ikasleen ziurtagiriak
4. Praktiketako datu orokorrak
5. Zain dauden aurreko ikasturteetako irakasle-ziurtagiriak
6. Zain dauden aurreko ikasturteetako instruktore ziurtagiriak
7. Aurreko urteetatik ebaluatu gabe dauden praktikak

## Zerrendak–Kalkulu orriak. Ikastegian balidatutako erakunde laguntzaileen zerrenda

Aukera honetan, ikastegian balidatuta dauden enpresei lotutako datuak zerrendatzen dira.




ikonoa sakatuz gero, sistemak datuen kalkulu orri bat sortuko du, eta erabiltzaileak bere ekipoan gordetzeko aukera izango du.

## Zerrendak-Kalkulu orriak. Uneko ikasturtean praktikaren bat duten erakunde laguntzaileak

Aurreko kasuaren berdina, baina beste baldintza batekin.

## Zerrendak-Kalkulu orriak. Aurreko urteetako burutu gabeko ikasleen ziurtagiriak

*Aurreko urteetako burutu gabeko ikasleen ziurtagiriak* alertari lotuta, sortzeko zain dauden ikasleen ziurtagiriak zein ikasturte akademikoan ditugun erakutsiko du, baita Excel batean esportatu daitezkeen ikasleen, praktikaren eta enpresaren datuak ere.




## Zerrendak-Kalkulu orriak. Praktiketako datu orokorrak

Aukera horretatik, praktiken eskaintzaren praktikari buruzko datu orokorrei lotutako datuak zerrendatzen dira, eta Excel batean esporta daitezke.




## Zerrendak-Kalkulu orriak. Zain dauden aurreko ikasturteetako irakasle ziurtagiriak

"Aurreko ikasturteetako irakasle-ziurtagiri batzuk prozesatzeko zain daude" alertari lotuta, erakutsiko du zein ikasturte akademikoan ditugun ziurtagiriak sortzeko zain eta baita praktikaren irakasleen datuak ere, Excel batean esportatu daitezkeenak.




## Zerrendak-Kalkulu orriak. Zain dauden aurreko ikasturteetako instruktore-ziurtagiriak

"Aurreko ikasturteetako instruktore-ziurtagiri batzuk prozesatzeko zain daude" alertari lotuta, erakutsiko du zein ikasturte akademikoan ditugun ziurtagiriak sortzeko zain, baita praktikaren instruktoreen datuak ere, Excel batean esportatu daitezkeenak.




## Zerrendak-Kalkulu orriak. Aurreko urteetatik ebaluatu gabe dauden praktikak

“Aurreko ikasturteetako ebaluatu gabeko praktikak daude” alertari lotuta, erakutsiko du ebaluatzeko praktikak ditugun ikasturte akademikoa eta praktika horien datuak. Informazio hau Excel batean esporta daiteke.

## IKASTURTE AKADEMIKOAREN AMAIERA

Ikasturtea itxita dagoela, instruktoreek, ikasleek eta irakasleek eska dezakete ziurtagiria.

Irakasleak praktikaren ebaluazioa egin dezake. Espedientea irekita duen ikasleak memoria osatu dezake eta ikastegiko arduradunak ebaluazioa, txostena eta memoria ezabatu ditzake, aktibatuta dagoen “Ebaluazio zuzenketa baimendu” botoiaren bidez.

## AURKIBIDE ALFABETIKOA

**Orrialdea**

ALBISTEAK ... 17
ALERTAK ... 17
ATARIKOA ... 5
AURKIBIDE ALFABETIKOA ... 50
ENPRESAK ... 21
**Enpresak. Balidatu enpresa/erakunde laguntzaileak ... 24**
**Enpresak. Enpresa/Erakunde Laguntzaileak ... 22**
**Enpresak. Erakundeak ... 21**
**Enpresak. Unitateak/atalak ... 24**
ESLEIPENAK ... 38
**Esleipenak. Eskuratu hitzarmenak ... 39**
**Esleipenak. Esleipena ... 40**
**Esleipenak. Iruzkinak - iradokizunak ... 40**
**Esleipenak. Txostenak - Memoria ... 39**
IKASLEAK ... 19
**Ikasle-zerrenda ... 19**
IKASTURTE BERRIA HASTEA ... 5
IKASTURTEAREN AMAIERA ... 49
JAKINARAZPENAK ... 41
**Jakinarazpenak. Jakinarazpenak erabiltzaile bati ... 42**
**Jakinarazpenak. Jakinarazpenak taldeei ... 41**
PARAMETROAK ... 6
PRAKTIKAK ... 25
**Praktikak. Balidatu praktikak ... 34**
**Praktikak. Praktiken eskaintzen kopia ... 35**
**Praktikak. Praktiketako eskaintza ... 26**
SARBIDE BALDINTZAK ... 4
TAULA OROKORRAK ... 18
**Taula orokorrak. Espezialitateak-eremuak ... 19**
**Taula orokorrak. Tutoretzen protokoloa ... 18**
TUTOREAK ... 35
**Tutoreak. Begiraleak ... 35**
**Tutoreak. Irakasle tutoreak ... 37**
ZERRENDAK – KALKULU ORRIAK
Aurreko urteetatik ebaluatu gabe dauden praktikak ... 49
Praktiketako datu orikorrak ... **47**
**Zerrendak. Aurreko urteetako burutu gabeko ikasleen ziurtagiriak ... 47**
**Zerrendak. Ikastegian balidatutako enpresa – erakunde laguntzaileen zerrenda ... 46**
**Zerrendak. Uneko ikasturtean praktikaren bat duten enpresa/erakunde laguntzaileak ... 47**
**Zain dauden aurreko ikasturteetako irakasle ziurtagiriak ... 48**
ZIURTAGIRIAK ... 43
**Ziurtagiriak. Eskaera duten begiraleak ... 45**
**Ziurtagiriak. Ikasleak ... 43**
Ziurtagiriak. Instruktoreak – sorkuntza masiboa ... **45**
**Ziurtagiriak. Irakasle tutoreak ... 44**